

Balioetan oinarritutako Eskola Kirolaren alde egin dute apustu

Asteartean bildu ziren Astigarragako eta Hernaniko ikastetxeetako ordezkariak, guraso elkarteko ordezkariak eta Hernani eta Astigarragako kirol teknikari eta udal ordezkariak.

ASTIGARRAGA HERNANI ESKOLA KIROLA

7 urte dira Eskola Kiroleko motorra martxan jarri zela. Bertan Hernani eta Astigarragako ikastetxeetako ordezkariak, Ikastetxeetako guraso elkarteetako ordezkariak eta Hernani eta Astigarragako kirol teknikari eta udal ordezkariak hartu dute parte. 2014-2015 ikasturtean hasi ziren proiektu bateragarri baten alde lan egiten, eta 2015ean, Hernani eta Astigarragako ikastetxeetako organo gorenek «proiektuarekiko atxikipena sinatu zuten». 2018-2019 ikasturtean, herri mailako Eskola Kirolaren eredu adostu eta berretsi zuten, ikastetxe eta udalerekin.

Proiektu berriaren eredu

Eskola Kirolaren eredu, hila-betero egiten diren bileretan eta egin dituzten tailer desberdinetan landutakoaren fruitua da. «Garrantzi handia ematen diogu Hernani eta Astigarragako haurrek Eskola Kirola hezitzailea eta bateratua egin ahal izateari. Eskola Kirola haur eta gazteen hezkuntzaren osagai eta osagarri gisa ulertzen dugu». Beraz, Eskola Kiroleko antolakuntza-ko adierazi dute, sortu zuten eredu bizi daukan programa batean oinarritzen dela, «hobekuntza eta aldaketetarako prest dagoena, haurrentzat ahalik eta



Hainbat ordezkari bildu ziren asteartean, Eskola Kirolari buruzko proiektuaz jarduteko.

programa aberatsa eta erakar-garriena lortzeko asmoz».

Balioetan oinarritutako Eskola Kirola

«Balioetan oinarritutako jarduerak da gure ardatza» azaldu zuten, eta jarraian, Eskola Kirolak izango dituen balio eta oinarriak azaldu zituzten; kirola ezagutzea, esaterako. «Gure seme-alabek askotariko jarduerak fisiko eta kirol jarduerak probatu eta ezagutzea nahi dugu, orain eta etorkizunean kirola eta jarduerak fisiko beren bizimoduko osagai izan daitezten». Kirolean gozatzea ere balio eta oinarri dute Eskola Kirolakoek; «gazteek kirola eta jarduerak fisiko eginez gozatzea nahi dugu, lehia itsu eta puntuazioetatik haratago». Azpimarratu zuten, baita ere, lehiakortasun zintzoa sustatuko dutela, «puntuazio eta sailkapenak lehenetsiko ez dituen». Harreman onak sustatuko dituzte, «berdintasuna, elkarlana, ezkuzabaltasuna...». Errespetua ere sustatuko dute, «errespetuz jokatzeko arbitroa-

rekin, kideekin...». Talde lanari garrantzia emango zaio, «talde lana eta elkarlana sustatuko dugu». Taldeko arauak beteko direla azpimarratu zuten, «asistentzia, puntuatasuna, material eta instalazioak zain-tzea...». Ikaste-irakaste prozesuan, autoestima, motibazioa eta berdinen arteko ikasketa lantzea ere helburu dute. Eskola Kirola, euskaraz da, eta euskaraz bizitzeko eta gozagarri izateko, «euskara maitatuko dugu», azaldu zuten. Guztiontzat den kalitatezko Eskola Kirola sustatu nahi dute, «bazterketarik egin ez duena. Ikasle guztiak dira beharrezkoak, eta bakoitzaren desberdintasunak irakaskuntza prozesua aberasten dute». Eta azkenik parekidetasuna bultzatuko dute, «sexuaren arabera estereotipoak eta rola alboratuta, pertsonen garapen integrean oinarrituko gara».

Ondoriozta daitezke, beraz, Eskola Kiroleko proiektu berri honen helburuak direla; kirola ezagutzea, kirolean gozatzea, autoestima lantzea, motibazioa

eta berdinen arteko ikaskuntza sustatzea, euskaraz bizitzea eta Eskola Kirol parekidea bultzatzea.

Laguntzak bai, baina baita oztopoak ere

Hori guztia aurrera eramatea posible izan da «hezkuntza komunitateari eta herriko kirol elkarteei esker». Orain arteko bideaz ere jardun zuten astearteko prentsurrekoan, «bide honetan laguntza eta elkarlana izan arren, zailtasunak eta oztopoak ere izan ditugu. Eskola Kirola arautzen duen markoa guztiz zehaztua ez izateak, gure mahaiak hartutako erabaki batzuk babesgabe utzi ditu». Horregatik, eskakizun zuzena egin nahi izan zioten, «Foru Aldundiari, markoa osatu eta landu dugun eredu hezitzaile hau babes dezan». Baina bitartean, aurrera jarraitu beharko dute Eskola Kiroleko proiektu hau aurrera eramateko, eta «Hernaniko eta Astigarragako Eskola Kirola bateratu eta hezitzaile baten alde egiteko». **K**



Stock Azoka, gaur eta bihar

HERNANI STOCK AZOKA

Gaur eta bihar, Stock Azoka egongo da Plaza Berrin, Berriak elkarteak antolatuta. Gaur goiz eta arratsalde, eta bihar goizez.

Amenabarro eta Bilbatua, gaurkoan

HERNANI HEZKUNTZA ESKOLA

Hileroko zitarekin jarraituz, gaur Hezkuntza Eskola antolatuta da 17:30etan, udaletxean. *Motxiladun haurrak, zaintza eta arreta espezifikoak* izango da gaia. Esti Amenabarro eta Marian Bilbatua hezkuntzan adituak izango dira.

Hausnarketa eta eztabaida, bihar

HERNANI KONTRAKANTXA

Jai eredu kapitalistaren inguruko hausnarketa eta eztabaida egingo da bihar, arratsaldeko 18:30etan, Kontrakantxan. Animateko deia luzatu dute.

Bilera deia, Hernani Ahal duguk

HERNANI PODEMOS-AHAL DUGU

Gaur arratsaldeko 19:00etan ez ohiko bilera bat antolatu du Podemos-Ahal Dugu Hernani zirkuluak, eta deialdia luzatu du, parte hartu nahi duen ororentzat. Apirilaren 5erako deitutako Eusko Legebiltzararako hurrengo hauteskundearen gaia landuko da bertan.

'Ezagutu Astigarraga' saioa, gaur

ASTIGARRAGA EHUNTZEN

Gaur, Astigarraga Ehuntzen hirugarren saioa eskainiko da. Proiektu honek, Astigarragako belaunaldien arteko harreman eta elkarlana du helburu. Goizeko 11:30etatik 14:30etara bitartean izango da, Galtzaurren.

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

Asteartetik igande eguerdira irekita

Osiñaga auzoa, Hernani Tel. 943 55 68 94

Tripontzi
jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

Sagardo naturala

SAGARDOTEGIA ALBERRO

ALBERRO SAGARDOTEGIA
Tel. 943 55 00 19

EGURALDIA GAUR Gaur egunaren lehenengo partean haizea ibiliko da. Hala ere epeldu egingo du eta ostarteak sortuko dira. Arratsaldean haizea ugartu egingo da eta lainoak eragingo ditu **Min.9° / Max.16°**

BIHAR Bihar giro eguzkitsua izango dugu. Goizean lainoak ugartuko dira baina eguerdirako ostarteak sortuko dira eta tenperaturak gora egingo du. **Min.7° / Max.18°**

ARGITARRAZAILEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK Hernaniko Udala, Astigarragako Udala, Euzko Leizola, Goizuetako Udala, Aranoko Udala.

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622

AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietak, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

HERNANI BAZKIDEA, ASTIGARRAGA BAZKIDEA, GOIZUETA BAZKIDEA, ARANOKO BAZKIDEA, Euzko Leizola, GIZUEN BAZKIDEA, GIBURUEN BAZKIDEA, GIBURUEN FORU ALDUNDIA, PREGU.

Gaurkoan 'Sareak' ikuskizuna, eta etzi 'Ikimilikiliklik', Biterin

Gaur arratsaldeko 20:00etan, Sareak ikuskizuna ikusteko aukera izango dute askok, eta etzi berriz txikiarentzat Ikimilikiliklik eskainiko da.

HERNANI ANTZERKI IKUSKIZUNAK

Gaur arratsaldean, Sareak izeneko ikuskizuna eskainiko dute, arratsaldeko 20:00etan Biterin. Testurik gabeko antzerki honek, arrantzari buruzko antzinako istorioak kontatzen ditu. «Arrantza nagusiki gizonen egindako lana bada ere, emakumezkoak dira portuan sareak konpontzen dituztenak». Hori dela eta, saregile horien

omen egin nahi die gaurko obra honekin. «Sareak lan honetan, porturaino eramango gaitu bost emakumeren indarrak, intimitate eta umorearen bidez».

Etzi, 'Ikimilikiliklik'

Etzi berriz, etxeko gatzetxoek zuzendutako antzerki bat eskainiko da, eguerdiko 12:00etan hasita, Biterin. 50 minutu iraungo ditu ikuskizunak, eta 6 urtetik gorakoei zuzendutakoa izango

da. Jokin Oregik zuzendutako antzezlan honetan, Ekhi da protagonista, eta Ekhiren beldurrei buruzko kontakizun batean oinarritzen da. «Haurra zela, haizak arrazoigatik beldurtzen zen, baina baziren guztien gaitetik beldur izugarria eragiten zioten bi gauza: norbait babesgabe egotea eta bestea, sorginak. Baina hainbeste maite zuen armiarmatxoa salbatzeagatik, bere beldurrei aurre egingo die Ekhi».

Antzezlanean ariko diren antzezleak: Ane Meabe, Aiora Sedano, Juana Palacios, Leire Omeñaca eta Mitane Sarralde. **K**



Ezkerrean, Izaro Salaberria.

Ohorezko postuak, hernaniarrentzat

HERNANI ATLETISMOA

Gimnastica Uliak krozean, hainbat korrikalari hernaniar izan ziren eta kategoria desberdinetan, ohorezko postuak lortu zituzten. Haien artean, zorianak eman nahi dizkiete Hernaniko klubetik, Izaro Salaberria, Endika Barral, Enara Kerejeta eta Lur Oconi.

Etzi helduko dira Inauteriak, Aranora

Asteburu honetan, goizeko 08:00etarako puska biltzen ariko dira Aranoren Inauterien eguna baitute larunbatean.

ARANOR INAUTERIAK

Bailarako beste herrietatik baino lehenago pasatzen dira Karnabalak Aranotik. Hori horrela, larunbat honetan izango da Aranoren festa. Goizean goizetik hasiko dira ekintzak egiten; Beltsoko bordatik aterako dira puskak biltzera, Izer eta Alabiarrekin batera. Behin goize-



Giro ederrean igaro zituzten aurreko urteko Inauteriak, Aranoren.

ko ekintza amaituta, sabelak betetzeko asmotan, zomorreen bazkaria antolatu da, eta gaur da azken eguna izena emateko, Kontsejuko arbelean.

Arratsaldean, Zahagi Dantza ikusteko aukera ere izango da,

17:30ak inguruan, eta Inauterietako egun sendoarekin amaitzeko, afari herrikoia egiten dute elkartean, eta afal ostean, bingo musikatuz gozatuko dute. Gogoratu gaur dela azken eguna, bazkarian izena emateko. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta abiaren, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Egia osoa argitara!

Herri honetan, minarekin batera bizitzen ikasi behar izan dugu. Guardia Zibilaren, Espainiako Poliziaren zein Ertzaintzaren kuarteletan noizbait egin ziguten mina -min infinitua- inoiz ez da sendatu: barru-barruan gurekin daramagu, edonoiz, edonora. Noizbait iraindu egin gintuzten eta umilatu, mespretxatu eta gutxietsi, ukitu eta ito, jo eta bortxatu... eta gure arteko zenbait hil ere egin zituzten. Beti ere minez, baina gure herriaren askatasunaren alde borrokan jarraitzeko gai izan ginen.

Herri honetan, tortura arma aski sofistikatua izan da euskal independentismoaren aurka jarduteko. Funtzionatzeko, sare

kafkiar bat antolatu zuten, beren arduradun politiko, instituzional, polizial, mediko, judizial eta mediatikoen inplikazioz. Baina 5.655 laguni egin digutena ez omen da gertatu; geure burutazio baino ez omen da. Eta geure mina areagotu duen horixe da azken batean, aitortza gabekoa hori.

Horrekin batera, Espainiako kartzelatan dauden berrehunen bat preso politikoetatik 120 torturatu egin zituzten atxilotu zituztenean. Horiek guztiak kalean egongo lirateke, Instanbulgo protokoloan oinarrituz, trantsiziozko justizia aplikatuta. Hori egitea, torturatu egin dela onartzea litzateke, aitortzarako

bidean beste pauso bat. Torturak inpunitate osoa izaten jarraitzen du, eta torturazailak kategoriaz igo ez ezik kondekoratu ere egin dituzte kasu askotan.

Egia osoa argitara ematea behar-beharrezkoa dugu, ez bakarrik gure mina arintzeko, baizik eta herri honek bake eta askatasun agertoki berri batera aurrera egiteko ere. Sufrimendu batzuk ukatzeak gatazkara gehiago katramilatzen gaitu eta gatazka betiketzen du. Gure seme-alabek oinordekotzan ez dezatela gure mina jaso, bakean eta aske bizi den herri bat baizik.

Aitzol Arrieta Erauskin, Sortuko kidea

Ene Kantak ikuskizunerako sarrerak, Hernanin eta Astigarragan

ASTIGARRAGA HERNANI ENE KANTAK

Otsailaren 29rako antolatu den Ene Kantak emanaldirako sarrerak salgai daude oraindik. Urnietan amaitu dira, baina Hernanin, Doberan, eta Astigarragan, Merke Azoka dendan oraindik eskuratu daitezke.

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Espesientziadun neska euskaldunak goizetan lan egingo luke etxeak garbitzen, umeak edo helduak zaintzen... Deitu: 637 394 893

Martxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: 644 319 054

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

PLAZA BERRIA

STOCK AZOKA **OTSAILAK 13-14**

Hernani

OSTEGUNA 13
10:00 - 14:00
16:00 - 20:00

OSTIRALA 14
10:00 - 14:00

BERRIAK Hernani

www.hernanidenda.com 676.194.803

herri bizi, hernanin erosi

Hernaniko Udala